



BARREN
TOKIKOM



Ametsak josten

Myriam Martin



MERKEALDIA ETXKO EHUNGINTZANI

Izarak, edredoiak, ohazalak, nordikoak, mantak...



Mila esker
zuen konfiantzagatik!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



EUSKALDUNA,

HERRITARRA,

HEZKUNTZA EREDU PROPIOA,

ERALDATZAILEA



Euskararen ardatzuriko
eleantzasuna

Herritik sortuak eta herrian zintzat
Kooperatiba
Auzolan eta erakundea
Euskal Curriculuma
Kompetentziaren oinarritutakoa
Aitzindaritz Pedagogikoa
Prestakuntza eta
aholkularitza
IHG+H
Ikasmaterialgintza
propioa

Bikaintasuna ikasle
hobekuntzan
Euskal Kultura

Euskal Herritik mundura

Ongi etorri! Eskerrik asko!
gurean izena
eman duzuen guztioi

www.elgoibarikastola.eus

943 74 44 41

elgoibar@elgoibarikastola.eus

GREMIOEN GIDAN AGERTU NAHIKO ZENUKE?



Aroztegiak - Erreformak - Igeltseritza
Pintura - Leihoak
Iturgintza - Elektrizitatea

Gidan agertzearen onurak!

21€
hilean

21 Eren truke, hileroko,
zure enpresaren datuak
eta irudia erakutsiko ditugu
BARREN astekarian!

12
aldiz urtean

BARREN astekaria da
Elgoibar eta Mendaron
erakusleiko ikusia.

4.885
ale astero

4.885 ale banatzen ditugu
Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada euskarari eta
lagundu gure
proiektua finantzatzen.

943 744 112 / 688 769 657

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk - 20870 ELGOIBAR

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

ANE KORTABERRIA

Ikasle ekintzailea



Elgoibar, elgoibartarrak eta aisialdia

tiral arratsaldea iristeko desiatzen egoten naiz, estresa alde batera laga, deskonektatu eta denbora libreaz gozatzeko.

Egia da ikaslea izanda hori dela tokatzen zaidana eta garai hobekak etorriko direla, baina benetan, non dago hainbestetan aipatzen den "unibertsitateko bizitza" hori?

Orain arte, Karakatera, tabernetara edo Maltzagara joaten aritu naiz gehienak bezala, baina betikoa errepikatzeaz aspertuta nago. Gainera, gaur egungo egoera dela-eta, jada ez dakit zenbate-

kin elkartu naitekeen, zer egin dezakedan edo zein herri ez dagoen gorritz, esaterako.

Zerbait positiboa esatekotan, gertu duguna gehiago aprobetxatu behar dugula konturatu naiz. Beraz, ziur nago Elgoibarren ezagutzen dudana gain, egiteko gehiago dagoela. Baita nire egoera antzekoan dauden elgoibartar edo mendaroak gehiago ere. Herrian duguna ezagutzeari, azaleratzeari eta sinergia positiboak egiteari ezinbestekoa dela deritzot. Dugunaz jabetzeko eta gure aisialdiari etekina atera ahal izateko. Nor dator bat nirekin?




Hala, esandakoaren harira, zerbait martxan jarria dut jada elgoibartar batzuekin talde-lanean... Ez dakit zer eta nola aterako den, baina denbora librean zerbait egiteko aitzakia ona izanda, eta gainera, zerbait interesgarria aterako den susmoa dut...

"Karakatera, tabernetara edo Maltzagara joaten aritu naiz, gehienak bezala, baina betikoa egiteaz aspertuta nago"

Ez dakit zer idatzi. Bueno, egia esan, badakit, baina ez dakit nola. Beraz, nire buruan egunerokotasunean bueltaka dabilen gai baten inguruan idatziko dut.

Asteburua iristear dago eta astero bezala, galdera berdina hasi zait buruan marmarka: larunbatean eta igandean zer plan egingo dut?

Astelehenetik ostiralera bitartean unibertsitateko lanez gainezka egoten naiz, etengabeko estresa eta presioarekin. Izan ere, astean zehar nire ohiko plana unibertsitateko etxera eta etxetik unibertsitateko joatea izaten da. Horregatik, os-

 <p>BARREN</p> <p>ARGITARATZAILEA:</p>  <p>ELGOIBARKO IZARRA Berkhala/lehen Topagunea</p>	<p>Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR 943 744 112</p> <p>Publizitatea: 943 743 704</p> <p>barren.publi@elgoibarkoizarra.eus barren@elgoibarkoizarra.eus www.barren.eus</p> <p>BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik.</p> <p>KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA Zaloa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzurika ADMINISTRARIA Amaia Arrizabalaga KOLABORATZAILEAK Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Ane Astiazaran, Irtati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.885 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p>  <p>ELGOIBAR UDONIA AYUNTAMIENTO</p> <p>LAGUNTZAILEAK:</p>   <p>Gipuzkoako Foru Aldundia</p>
--	--	--



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikun. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ AURTEN EZ GARA ZUENERA JOANGO!

Aurten ez gara Elgoibarko baserri-auzoetara joango otsailaren 4an. Aurten ez gaituzue zuen baserrietako atarrietan ikusi eta entzungo. Aurten ez gara Aiastiako soziedadean afaltzeko bilduko. COVID-19ak eragindako pandemia egoerak 27 urteko tradizioa etengo du, 2015eko elurteak egin zuen moduan.

Pena ematen digu, handia gainera, baina horrelakoetan osasunak beste guztiaurretik egon behar du ezinbestean. Ez dugu arriskurik hartuko.

Ondo bagara, datorren urtean bueltatuko gara zuengana berriz ere. Otsailaren 4an izango da, Santa Ageda bezperan. Kalegoen plazan bildu eta gustura hartuko ditugu baserri-auzoetako bideak. Ederra izaten delako zuen etxe atarrietan bildu eta kantuan jardutea. Zuen arpegiak ikustea. Egiten diguzuen harrerarekin gozatzea. Egiten duguna estimatzen duzuela sentitzen dugu, eta ohitura zaharrari eusteko asmoa daukagu, zuek nahikoa dela esaten ez diguzuen artean.

Beraz, eutsi bizipozari, zaindu zaitzte eta datorren urtera arte!

**Elgoibarko Izarrako
Santa Ageda taldea**

▶ BEHARRIK HANDIENEOAK GOGOAN SANTA ESKEAN

Gutxik pentsatzen zuten iazko otsailaren 1ean, Etxegiña taldeak duela 96 urtetik urtero egin duen legez Elgoibarko kaleak zeharkatzen zituenean, gaur bizi dugun egoera biziko genuela. Aurten, tamalez, ezingo gera Elgoibarko kaleetan ibili otsailaren 6an.

Horregatik, gurekin izan direnak eta gure artean ez daudenak gogoratuko ditugu, baina ez urtero legez. Ez gara Elgoibarko kaleetan zehar ibiliko.

Dena den, jakina da urteroko gure jardunean behartsuak eta kolektibo zaurga-

rrienak izaten ditugula gogoan, eta biltzen dugun diru guztia Caritasi ematen ditugula. Eta aurten inoiz baino garrantzitsua goa dela uste dugu lagundu behar hori. Osasun krisi bezala hasi zena krisi sozial eta ekonomiko ere bilakatu da, eta lehen baino gehiago dira behar gorrian dauden kolektiboak.

Horregatik kontu korrante bat ireki dugu zuen ekarpenak egin ditzazuen, inoiz baino beharrezkoagoa den garai hauetan: 3035 0007 23 0071019042

Eskerrak eman nahi dizkiegu bihotzez hauei guztiei: itxi berri den Muruamendi-raz gozotegia, Elustondo ardandegia (Ibartxiki), Eroski eta BM (Neto), Larre, Ibarrenea, Izagirre, Foteru, Doña Mercedes eta Urazandi okindegiak, Armueta, Patxi, Landa, Ziarda, Sahatzu eta Iraola Zialzeta harategiak, fruitategiak, Merkatu Plazakoak, Txillarre... Eta ez genuke ahaztu nahi Elgoibarko elkarte gastronomiko guztiek urtero ematen diguten babesa.

Mila esker zuen laguntzagatik. Hori gabe ezinezkoa litzateke ohitura honekin aurrera egitea, 1925ean German Uriguen Etxegiñak hasi zuena, Santi Kortabarriak jarraitua, eta Kepa Urain koplari izan duena urte askoan. Gogoan ditugu baita ere gure artean ez dauden Ramon Uriguen, Jesus Urizar edo Koldo Lizarralde.

Behar bezala ospatuko dugu laster ehungarren urteurrena, indarberrituta. Izan ere, azken urteetan Herri Eskolako eta Ikastolako haurrak ere gurekin etorri dira, eta horrek ilusio berezia piztu digu, etorkizuna badagoela ikusten dugulako.

Zaindu zaitzete.

Santa Eskeko Etxegiña Taldea

▶ EUKALIPTOA

Joan zen astean pozik irakurri nuen BARRENEK Zirardamendi inguruan egindako zuhaitz landaketari buruzko reportajea. Pinuen mozketak hutsik laga dituen mendi as-

koren magalak eta gizartean zein komunikabideetan eztabaida sortu da zein izango ote den pinuaren ordezkoa.

Zur-industriak eukaliptoaren aldeko apostua egin zuen mendi hektarea pila bat erositik eta baserriar askoren iritzia bereganatuz, epe laburreko etekin ekonomiko promestuz. Europako estatu askotan trabak ipini dituzte eukalipto landatzeko, espezie inbaditzailea izanik, balio ekologikorik gabea delako eta lehorteak eta suteak eragin dituelako. Pinuekin ikusitakoa errepikatuko da berriz ere: orain dela 20-30 urte pinu egurraren metro kubikoa 20.000 pzta (120€) ordaintzera ailegatu zen eta azken urteetan 40-50€/m³, gaitasunez gain gehiegizko eskaintza zegoelako.

Beste aldetik mendiko m²-aren prezioa hain baxua egonik, zergatik ez du Udalak diru partida bat sortzen lursailak erosi eta denon probetxurako baso publikoak sortzeko?

K.A.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEK edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahituez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idatzkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaz datorren eskutitz argitaratuko.

Eremu gorrian sartuta, gaurtik itxita dago ostalaritza Elgoibarren eta Mendaron eta taldeko kirola, debekatuta

Ostalaritza itxita dago gaurtik Elgoibarren eta Mendaron, azken hamalau egunetan 100.000 biztanleko 500 kasuko muga gainditu delako bi herrietan [Hoteletako jantokiak, bezeroentzako ostatuak, gasolindegia eta zerbitzuguneetako jantokiak dira salbuespena]. Elgoibar martitzenean sartu zen eremu gorrian, eta geroztik, egoerak okerrera egin du. Atzo, 667,24ko intzidentzia-tasa markatu zuen. Mendaron astelehenean gainditu zuten 500eko langa, eta 851,06ko intzidentzia-tasa markatu zuen martitzen, eguazten eta eguenean, azkeneko bi egunetan kasu positiborik atzeman ez duten arren. Ostalaritza ixteaz gain, taldeko kirola ere bertan behera utzi beharko da eta apustu etxeak itxi.

Herrira lotuta

Asteleheneraz geroztik herrira lotuta gaude. Izan ere, astelehenean sartu ziren indarrean koronabirusa ez zabaltzeko

Jaurlaritzak ezarritako azken neurriak: Udalerri guztien itxiera perimetrala eta bilerak, eremu zabaletan eta itxietan, gehienez lau lagunera mugatzea [bizikidetzaren unitate berekoak dira salbuespena]. Izaitez, etxeratze ordua 20:00etara aurreratzeko ere nahi zuten Jaurlaritzak, eta horrekin batera, establezimendua ixteko ordua 19:00etara aurreratzeko aukera ere aipatu zuten, baina etxeratze agindua ixteko aukerari ezetza eman zion Espainiako Gobernuak. Etxeratze agindua 20:00etara aurreratzeko 926/2020 Errege Dekretuaren egokitzapen bat eskatuko luke, eta Salvador Illa Osasun ministroak argi esan zion Jaurlaritzari ez zutela horren alde egingo. Ez zituzten hitzok gurtu hartu Jaurlaritzan. Gotzone Sagardui Osasun sailburua honela erantzun zion Illari: "Gaueko jarduerara mugatzeko ordutegia aurreratzeko aukerarik ez izateak esku hartzeko gaitasuna murrizten digu".

Kontuak kontu, etxeratze agindua 22:00etan mantendu dute, eta saltoki eta



tabernek 20:00etan itxi behar dituzte ateak. Gainerako neurriek bere horretan jarraitzen dute. Batetik, kultur jarduerara guztiak 21:00etarako amaitu behar dira, eta bestetik, 150 metro koadroko baino gehiago dituzten merkataritza establezimenduetan gehieneko edukiera %40koa izango da, eta metro koadro gutxiago dituztenetan, %60koa.

Zaintza sektorearen publikazioaren aldeko greba

Zaintzak profesionala, publikoa, duina, unibertsala eta doakoa izatea eskatu zuten martitzenean ELAk eta LABek deitutako grebara batu zirenek. ELA sindikatutik salatu zuten egun zaintzarekin lotutako lanbideak "pribatizatuta eta merkantilizatuta" daudela enpresa pribatuaren esku, eta enpresek ekonomia lehenesten dutela zaintzaren kaltetan. "Hori guztia, gainera, diru publikoz finantzatuta", gehitu zuten. Horren harira, zaintza sektorean diharduten langile profesionalen lan-baldintzak hobetzea ezinbestekoa dela nabarmendu zuten deitzaileek, zaintza premian dauden pertsonen arreta duin eta integrala izan dezaten biziaren ziklo desberdinetan, jaiotzetik hil arte. Eta zaintza duina eskaintzeko 10.000 profesional gehiago kontratatatu beharko lirakekeela jaso zuten eta langileen lanaldia %100era luzatu, borondatez kontrakoa eskatzen ez denetan. Era berean, sektoreko genero-arrakala gainditzeko "taxuzko neurriak" eskatu zituzten eta zaintzaren balio sozial eta produktiboa aitortzea. Eta pandemia egoeran, inoiz baino gehiago, langileen behar emozionalak asetzeko plana ere eskatu zuten, bai eta laneko osasuna bermatzeko neurri "egokiak" ere. San Lazaro egoitzako langileek bat egin zuten grebarako arrazoiekin.

Agertzeko falta diren Txankakuaren zenbaki saridunak

Txankakuatik jakinarazi dute lau sari eman gabe dituztela oraindik. Honako zenbaki hauek dira agertu gabe daudenak: 86.768 (Ordezkoa: 55.071), 4.857 (17.905), 91.819 (12.329) eta 48.181 (17.002). Otsailaren 7ra arteko epea jarri dute saridunak agertzeko.

Pantaila akustikoak jartzen hasi dira Elgoibarren AP-8 autobidean



Elgoibarren AP-8 autobidean pantaila akustikoak jartzeko lanak hasi ditu Moyua eraikuntza enpresak. Autobideko 66,4 eta 67,3 kilometro puntuen artean jarriko dituzte panelak, Ikastola eta Institutuaren artean. Bilboko norazkoan 866 metroko luzera izango dute, eta Donostiarakoan 405 metrokoa, eta zortzi hilabeteko epea izango dute lanak gauzatzeko. Panelek 2,5 metroko altura izango dute 66,4 kilometroaren eta biaduktuaren artean eta bi metrokoa biaduktuan. Biaduktutik 67,185 kilometro puntura arte, berriz, lau metroko altuera izango dute. Obrek 1.550.180 euroko aurrekontua izango dute (BEZ barne).

Ortosarasketa saltokiak eta Noa ile-apaindegiak irabazi dute Gabonetako Erakusleihoen Lehiaketa



Erakusleihoen lehiaketa antolatu zuen Gabonetarako Elgoibarko Udaleko Ekonomia Sustapenerako eta Enplegurako Sailak, herriko komertzio txikiari laguntzeko, eta martitzenean eman zuten irabazleen berri. Guztira, 30 saltokik parte hartu zuten eta 499 herritarrek eman zuten botoa. Epaimahai teknikoak Ortosarasketa eta Noa saritu ditu, 300 eta 200 euroko erosketa-txeekin. Herri epaimahaiak, berriz, Noa ile apaindegiari eman dio saria, 100 euroko erosketa-txeke, Txankakuako saltokietan trukatzeko. Botoa eman duten herritarren artean 50 euroko bono-txeke zozkatu dute eta Maria Arrate Armendia Larrañagari egokitu zaio saria.

Lorategi eta berdeguneak zaintzeko zerbitzua indartuko du Mendarok

Mendaroko berdegune eta lorategiak mantentzeko zerbitzua indartuko du Mendaroko Udalak. Lehiaketa publikoa zabaldu dute interesa duten enpresek beren eskaintzak egin ditzaten eta esleipena 2021eko lehen hiruhilekoan egingo dutela aurreratu dute.

Odol Emaileen Elkartetik eskerrak eman dizkiete Mekako langile eta ikasleei

Urtero egin ohi duten odol-ateratzea egin zuten joan zen barixakuan Meka Lanbide Eskolan, eta 45 lagunek eman zuten odola. Odol Emaileen Elkartetik eskerrak eman dizkiete odola eman zuten guztiei, bai eta ikastetxeko arduradunei ere, erakutsitako prestutasunagatik. Era berean, jakinarazi dute otsailaren 5ean (gaur zortzi) eta 26an egingo dituztela hurrengo odol-ateratzeak. Jubilatuen Biltokian egingo dituzte, eta parte hartzeko aurrez izena eman beharko da: 623 328 408.

Sendi Anaitasunaren urteko batzarrik ez aurten

Urtarrilean egin ohi du urtero Sendi Anaitasunak urteko batzarra Mendaron, baina aurten, COVID-19ak eragindako pandemia tarteko, ez dutela egingo jakinarazi dute. Hala ere, zuzendaritzatik esan dute 2020ko balantzea edota datuak jakin nahi dituenak eskatu besterik ez dituela. Era berean aurreratu dute 2021ean ez dutela kuotarik igoko eta gaur egungo zuzendaritzak beste urtebetez jarraitzeko konpromisoa hartu duela. Elkartean izena emateko aukera ere badagoela gogorazi dute.

Elgoibarko ostalariek udal ordezkariari jakinarazi dizkiete dituzten beharrak eta eskaerak

Herriko ostalariak kalera irten ziren eguaztenean protesta egitera, eta oraingoan udalbatzarrera ere eramán zituzten euren eskaerak. Elgoibar eremu gorrian dago, eta adierazi zuten berriz ere ostalariak izango direla kalte-tuenak. Datorkienaren aurrean, haserre eta kezkatuta agertu ziren ostalariak, eta Elgoibarko Udalaren Osoko Bilkurak 2021erako udal aurrekontuak eztabaibatu behar zituela probestuz egin zuten 'SOS ostalaritza' lemapean protesta zaratatsua Kalegoen plazan. Ostalarien bi ordezkariak, Eneritz Burunzak eta Manu Reyk, pleno aretotik jarraitu zuten bilkura eta berba egiteko aukera ere izan zuten: "Egoera kritikoan gaudela ikus dezazuela nahi dugu. Ikusten eta entzuten duzuen moduan jendea etsita dago", esan zuten Manu Reyk Kalegoen plazan protesta egiten ari ziren kideak aipatuz. Konfinamenduagatik eta ostalaritzaren itxialdiagatik 2020. urteko laurden bat lanik egin ezinda pasatu dutela azaldu ziren udal ordezkariak eta hori sostengatu ezina dela. Horrekin batera ordutegiak murriztu izanak ostalarien lana galzorian jarri duela azaldu zuten. Eneritz Burunzak ostalaritza



ixteko erabakia zertan oinarrituta dagoen argitzea ere eskatu zuten, eta nabarmendu zuten merkataritza sektorearentzat ere ez dela ona ostalaritza itxita egotea. Erabakiren bat hartzea premiazkoa dela esan zien agintariei. Ane Beitia alkateak eskerrak eman zizkien bi ordezkariak euren azalpenak ematera udaletxera joatearren eta esan zien eginiko eskaerak jaso dituela. Horrez gain, eurekin batzeko konpromisoa adierazi zien.

Laguntzak hizpide

Ostalaritza eta merkataritza sektorearentzako laguntzak ere hizpide izan zi-

tuzten bilkuran, eta EAJko bozeramaile Maialen Gurrutxagak aurreratu zuenez, 180.000 euroko partida bat egongo da aurten ostalaritzako eta merkataritzarako bono kanpaina berrietarako, eta zehaztu zuten partida hori handitzeko beharra ikusten bada, aztertuko dutela. Gogora ekarri zuten, era berean, 2020an 200.000 euro bideratu zituela Udalak bono kanpainera. Diru partida horiez gain, Gurrutxagak esan zuten beste modu batzuetan ere lagundu zieten sektore horiei, eta, besteak beste, Elgoibarklik plataforma digitala sortu izana aipatu zuten.

Trafikoa moztuko dute gaur eta datorren eguaztenean Urazandin, igogailuaren obren ondorioz



Aurrera doaz Urazandiko igogailuaren obrak: Gaur jarriko dute goiko igogailuaren egitura metalikoa eta datorren eguaztenean, berriz, beheko igogailuaren eta pasabidearen egiturak jarriko dituzte. Lan horien eraginez, trafikoa moztuko dute bi egun horietan: gaur, 9:30etik 10:30era eta, eguaztenean, berriz, 9:30etik 10:30era eta 14:00etatik 15:00etara.

la %20an txikitu da udal aurrekontua iaztik

Elgoibarko Udaleko osoko bilkurak 2021erako aurrekontua onartu zuten eguaztenean, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin. Hortaz, 16.940.000 euroko aurrekontua izango du Udalak aurtten, iazkoa baino ia %20 txikiagoa. EH Bilduk kontra bozkatu zuten, beraien ustez aurreko urteetako ildo beretik etorri delako aurtengo aurrekontua, eta uste dutelako koronabirusak baldintzatutako ezohiko egoera honek "ezohiko aurrekontuak" eskatzen dituela. Elkarrekin Podemosek ere ez ditu aurrekontuak babestu, ez daudela egungo egoerara moldatuta argudiatuta.

- AINHOA ANDONEGI -

Elgoibarko Udalak 16.941.643,67 milioi euroko aurrekontua izango du aurtten, iazkoa baino ia %20 txikiagoa, hain zuzen ere. Ane Beitia alkateak eta Asegin Uzuriaga zinegotziek prentsa agerraldian azaldu dutenez, aurtengo udal aurrekontuak hiru funts nagusi ditu: Herritarren babesa eta ongizatearen bermea, garapena alor sozial, ekonomiko, kultural eta jasangarrian, eta Elgoibarren etorkizuneko zimendu eta proiektuen sustapena. Udal gobernuak esan duenez, "herritarren ongizatea lehenetsi, ehun ekonomikoa babestu eta etorkizuneko Elgoibar eraikitzen duen aurrekontua" prestatu dute.

Inbertsioen atalera 2.480.000 euro bideratuko dituzte (iaz ia 4 milioi euro izan ziren), eta inbertsio nagusien artean ondorengoak nabarmendu dituzte, besteak beste: Igerilekuen handitzea, kiroldegi alboko igogailua, kaleen konponketa eta hirigintza lanak, LED argiteria jartzea eta Arriaga poligonoaren urbanizazioa, herritarren parthartzea eta datozen urteetan garatzeko proiektuak idaztea, tartean,



King-Kongeko zubiaren obra. Elgoibarrek aurrera egiteko aurrekontuak direla nabarmendu du Ane Beitia alkateak, eta esan du herritarrek jarri dituztela erdigunean: "Covid-19k gure artean jarraitzen du eta 2021ean egoerak hobera egitea aurreikusten den arren, asko dugu egiteko". Erakundeei arduraz jokatzea dagokiela gaineratu du. 2019-23 legealdirako jasotako lerro estrategikoen norantza galdu gabe, fokua birmoldatu behar izan dutela azaldu du alkateak, Covid-19ak sortutako egoerari erantzuteko, baina estrategiak berbera izaten jarraitzen duela zehaztu du: herritarrek babestu eta herriko ehun ekonomikoari laguntzea. Aurrekontuak bizi dugun errealtateari aurre egiteko diseinatu dituztela azpimarratu du, "pertsonek ongizateari dagozkion diru partidak mantenduz eta areagotuz".

Kirol Patronatuak, bestalde, 1.260.000 euroko aurrekontua izango du, eta Udalak %64an lagunduko dio aurtten, 810.000 euroekin, hain zuzen ere,

SARRERAK.....

Zuzeneko zergak	3.478.870
Zeharkako zergak	200.000
Tasak eta bestelako sarrerak	2.554.991,08
Transferentzia arruntak	8.805.000
Ondare sarrerak	12.000
Inbertsio errealen inorengatzea	106.000
Kapital transferentziak	544.782,59
Aktibo finantzarioak	0
Pasibo finantzarioak	1.240.000

Sarrerak guztira

16.941.643,67

GASTUAK.....

Pertsonal gastua	4.681.268,09
Ondasun arruntan eta zerbitzuen erosketa	6.866.696,27
Gastu finantzarioak	3.000
Transferentzia arruntak	2.828.142,39
Kreditu globala	32.336,92
Inbertsio errealak	2.530.200
Kapital transferentziak	0
Finantza aktiboak	0
Finantza pasiboak	0

Gastuak guztira

16.941.643,67

AURREKONTUAK, SAILKA

KULTURA SAILA	1.705.176,59
HIRIGINTZA SAILA	6.341.872,07
GIZARTE ONGIZATEA	1.163.300
BARNE SAILA	2.548.026,92
OGASUN SAILA	122.800
GAZTERIA SAILA	339.200
BERDINTASUN SAILA	40.000

GASTU ETA INBERTSIO NAGUSIAK

Udal aurrekontua sailka aztertuta, Hirigintza Sailak hartzen du zatirik handiena, 6.341.872,07 euro hain zuzen ere. Inbertsioetarako 2.480.000 euro erabiliko dituzte, [iaz ia lau milioi euro bideratu zituzten inbertsioetara]. Jarraian dituzue 2021erako inbertsio nagusiak.

Igerilekuen handitzea	1.000.000
Kiroldegi alboko igogailua	325.000
Kaleen konponketa eta hirigintza lanak	260.000
LED argiteria	260.000
Arriaga poligonoaren urbanizazioa	250.000
Herritarren parte-hartzea	200.000
Landa eremuetan lanak egitea	180.000
Proiektuak idaztea (King-Kong-en hasiera, tartean)	120.000

IRISGARRITASUNA

Irisgarritasuna hobetzeko asmoz, hainbat lan egitea aurreikusi du Udalak urte honetan. Alor honetan ondorengoak nabarmendu dituzte: San Roken igogailua jarriko dute; King-Kong-eko zubiaren proiektua hasiko dute; Pedro Mugurutzako bizilagunekin parte-hartze prozesu bati ekingo diote, eskola zaharrak botatzeko proiektua idazteko; landa auzoetan hobekuntzak egiteko konpromisoa erakutsi dute, herriko espaloiak konponduko dituzte eta Maltzagarako bidegorrian komun bat jarriko dute, Elgoibarko aldean. Herriko argiteria hobetzea ere aurreikusi du Udalak, puntu beltzak ezabatzeko.

IGOERA HANDIENA GIZARTE ZERBITZUETAN

"Ahulen dauden herritarrei laguntzeko", Gizarte Zerbitzuetan apustu sendoa egin dutela adierazi du Udalak. Iazko aurrekontuekin alderatuta %5,5ean handitu dute gizarte zerbitzuetarako diru kopurua, eta iaz baino 60.000 euro gehiago bideratu dituzte atal honetara. Hauek dira nabarmendu dituzten gorakadak:

Etxez etxeko zerbitzua	175.000 eurotik 190.000ra.
Bazterketa egoerei lotutako programak	118.000tik 173.000ra
Gizarte larrialdiak	200.000
Haur nerabe eta familientzako programak	75.000 (iaz bezala)
Osasun programak	27.000 (iaz bezala)
Elkartegintzako laguntzak mantendu egin dira	

EKONOMIA ETA ENPLEGUA

Garapen ekonomikoa udal eskumenetik harago doan alorra dela azaldu zuten prentsaurrekoan, baina hala ere, ehun ekonomiko indartsua mantentzeko eta sustatzeko ahalegina egingo dutela adierazi zuten. Enpresa eta langileei laguntzeko, enpresak herrira erakartzeko eta hemengoak bertan geratzeko baliabideak jarriko dituztela hitz eman du, eta horren barruan kokatu du, esaterako, Arriaga poligonoa urbanizatzeko proiektua. Ekonomia eta formazioari dagokion aurrekontua bikoiztu egin dute, 142.600 eurotik 283.100 eurora, eta ostalaritza eta merkataritza sustatzeko bono kanpaina berri bat egiteko 120.000 euroko partida gorde dute. Azkenik, Elgoibar Klik plataforma garatzeko aurrekontua ere aurreikusi dutela azaldu du.

KULTURA ETA BERDINTASUNA

1.705.176,59 euro jasoko ditu Kultura Sailak. Udalak adierazi du kultura babesten jarraitzeko asmoa duela eta sail honek ia iazko kopuru berbera jasoko du. Esan dutenez, eragileentzako dirulaguntzak mantendu dituzte, eta kultur ekimenak areagotu. Berdintasun Sailari dagokionez, Emakumeen Txokoa izango da berrikuntza nagusia. Urtarrilean hasiko dute obra. Espazio dinamikoa eta irekia izango dela aurreratu dute, empatia sortzeko topagunea, emakumeen berdintasuna, askatasuna, partaidetza eta presentzia sustatzeko gunea.

Alderdien esanak



“Zailtasunen aurrean, Elgoibarren eta elgoibartarren neurriari landutako aurrekontua aurkeztu eta onartuko du Elgoibarko Udalak: herritarren ongizatearen ba-

besa, herriaren garapena alor ekonomiko, sozial eta jasangarria, eta elgoibartarrantzat hain garrantzitsu diren proiektuei bidea emanaz.

Arduraz jokatzen gabiltza Covid-19ak baldintzatzen dituen garai hauetan, erantzukizunari uko egin gabe eta Udalak beregan dituen kompetenziak eta ardurak garatuz.

Azaroa bukaeran oposizioako talde guztiei luzatu genien aurrekontuaren hasierako proposamena. Proposamen horretan, gehien behar duten herritar eta eragileei laguntzeko partidak zeuden, baita gizarte ongizatearen aldeko apustua %5,5eko igoera batekin. Goraipatu alderdi sozialistarekin mantentzen dugun harreman emankorra Elgoibar oinarri eta helburu bezala partekatuz.

Elgoibartarrak aurrekontuen erdigunean kokatu kokatzen ditugu, beti, pandemia honek eskatzen dituen egokitzapenekin eta indar berezia emanez gizarte babesari, ostalaritza eta merkataritzari, zerbitzuei... Aurrekontu hauek pandemia hasi zenetik igoera izan dute, behar izan den momentu guztietan hor egon da Udala Gobernu. Ostalaritza eta merkataritzari zuzendutako partidari begiratzen badiogu 2020ko hasierako aurrekontua 30.000€koa zen, baina pandemiaren ondorioz zuzenean 205.000€tara igo

“Herritarrak babestu eta laguntzen jarraitzen duen aurrekontua osatu dugu, herriaren beharrei helduz”

genuen. Hemen ikusten da gure konpromisoa, behar denean behar dutenen ondoan gaudela. Aurtengo aurrekontua 120.000 eurokoa izango da, hau zuzenean bonoetarako izango da, baina 2020an gertatu zen bezala, gehiago behar izan ez gero, handituko da.

EH Bilduren partetik lehen erantzuna denbora luzera iritsi eta gainera elkarlanerako asmo gutxiarekin, beraien ekarpenak populismoa eta titularrak bilatzera bideratuta zeuden soilik.

Covid-19ak dakarren ziurgabetasuna nagusi den garai honetan, zorpetze muga zaindu dugu, 2020an egoerari erantzuteko baliabide ekonomikoak egokitu ditugun moduan, 2021ean beharrezkoak izan daitezken neurriak hartzeko ahalmena bermatuz. Gestio arduratsuan sinesten dugu.

Zorionez, Udalaren egoera finantzarioa ona da, eta altxortegi-maila bermatu behar dugu orain, arduraz jokatuz, etorkizuneko Elgoibarrari bidea emateko. Gizarte babesa bermatua dago eta pandemiak bereziki eragiten dien sektoreekin gaude. Behar adina laguntza emango dugu, baina zuhurtziaz. Aurrekontuak pandemia honetatik ahalik eta indartsuen iritien lagunduko digu etorkizuneko Elgoibar elkarlanean eraikitzen jarraitu dezagun”.



“Elgoibarko PSE-EEk gure herrirako aurrekontuak onartzea ahalbidetu du herritarrekiko erakutsi dugun erantzukizunagatik. COVID-

19ak eragindako krisi-egoerak aurrekontu berriak berehala edukitzeko beharra ekarri du.

Ezin dugu egon, EH-Bilduk bere osoko zuzenketa aurkeztuz nahi zuen bezala, 2019ko azaroan onartu eta gaur egungo errealitateari egokitzen ez diren aurrekontu luzatuekin. Izan ere, aurrekontuak onartu ziren bezala luzatzen dira, hau da, pandemiari eta ondoren iritsi den krisi ekonomiko eta sozialari aurre egiteko iaz egin behar izan ziren kreditu-aldaketak gaineratu gabe.

Onartutako proiektua ez da sozialistonek iritiz egokiena Elgoibartarrantzat, baina zeuden aukeren artean irtenbide onena dela uste dugu. Eta ez da hain proiektu txarra izango ia 17 milioi euroko aurrekontu bati EH-Bilduk zortzi zuzenketa baino aurkeztu ez dizkionean.

Uste dugu EH-Bilduren proposamen partzial apurrek —funtsean bat etor gaitzke haiekin— aurrekontua hobetu zezaketela, baldin eta modu egokian eta errealistan aurkeztu izan balituzte.

“Ezin ditugu zenbait partida neurritz kanpo puztu herritarrekin ondo geratzeagatik”

Ezin izan dugu makropartidak sortzearen alde bozkatu, hainbat aurrekontu-kapitulutako gastuak nahasten dituenean; ezin ditugu zenbait partida neurritz kanpo puztu herritarren aurrean ondo geratzeagatik soilik, udal-teknikariak —herritarren beharrik ondo ezagutzen dutenak— horretarako beharrik ikusten ez dutenean; ezin dugu herri barruko autobus bat ezartzeko —proposamenarekin ados egon gaitzke— partida bat finkatu txosten teknikorik, azterketa ekonomikorik eta bideragarritasun-azterketarik ez badugu.

2021eko udal-aurrekontuak dokumentu bizia eta COVID-19ak eskatzen dizkigun etengabeko aldaketetara egokitzeko behar diren kreditu-aldaketak egiteko irekia izan behar du.

PSE-EEtik konfiantzazko botoa eman nahi diegu alkateari eta urtean zehar beharrezkoak izan daitezkeen aldaketak egiteko hartu duen konpromisoari. Bizitzen ari garen une latz hauetan Elgoibarrek soluzioak behar dituelako eta ez tentsio gehiago”.

ehbildu

“Aurrekontuak onartzeko prozesu berezia eta ezberdina izan dugu aurten. Berezia, bizi dugun pandemia egoeragatik eta horrek

eragindako krisi ekonomiko eta sozial izugarriari erantzun beharra dagoelako aurrekontuetatik. Eta ezberdina, udal gobernuan egon arren, PSEk emendakinak aurkeztu dizkiolako aurrekontu proiektuari. Ez edozelakoak, gainera. Horrek bestelako politikak egiteko aukera eskaintzen zuen, bestelako gehien-agoak osatzeko aukera, EH Bildu, Podemos eta PSEren artean.

Ezohiko aurrekontuak ezohiko egoera bati erantzuteko. Horixe bilatzen aritu gara azken asteotan. Bilerak eskatu dizkiegu PSE eta Podemosi, aurkeztutako emendakinak adostu eta aurrekontuetatik herritarren premia larriei erantzuten hasteko. Baina PSEko ordezkariak ez digute inoiz formalki erantzun. Azken orduan, nahiago izan dute berriro ere EAJren gonapean sartu eta beren konfort-eremuan mantendu. Nahiago izan dute ezer ez aldatzea herrian. Eta trukean, ez dute ezer lortu elgoibartarrentzat. EAJren konpromisoren bat. Ondo baino hobeto dakitenean, guk dakigun bezala, osoko-bilkuran beraien onartutakoak eta bertan hartutako konpromisoak ere ez dituztela betetzen.

Beraz, betiko aurrekontuak izango ditugu. Aurreko urteetako “korta-pega” baitira 2021eko aurrekontuak. Aspaldiko krisi la-

“Herritarren premiak erantzun barik geratu dira”

rienaren erdian gauden arren. Aurrekontuak nabarmen hobetzeko proposamenak jarri ditugu mahai gainean.

EAJk eta PSEk ezetz esan diete laguntzak behar eta eskatzen dituzten ostalariei eta merkatariei, beren enpleguarekin kezakuta daudenei, herrian mugitzeko HerriBusa eskatzen dutenei, egoera ekonomiko eta sozial zaurgarrienean daudenei...

Dirua badago, ez dagoela esaten duten arren. Ez dagoena da bestelako politika publikoak egiteko borondatea. Betikoa egiten jarraitu nahi dute, betikoen poltsikoak betetzeko, denona den dirua herritarren egiazko premiei erantzuteko erabili beharrean. 3 milioi euroko gerakina du Udalak, zorpetzearen bidez erabili daitekeena. Baina ez dute nahi.

Orain geratu ahal izan dute Elgoibarren martxan dagoen aldaketa. PSEk gehiengo alternatiboa gauzatzea blokeatu du. Gogogabetuta, ideiarik eta proiekturik gabe eta aurreko urteetako errenten kontura dabilen udal gobernuaren aurrean, bestelako politika publikoak eskatzen dituzten gehiengo alternatiboa dagoelako gure herrian. Aldaketa hori berandu baino lehen gauzatuko da Elgoibarren. Ziur gaude”.



“Elgoibarko Ahal Dugutik negatiboki baloratzen dugu Udal Gobernuak aurkeztutako aurrekontua. Gure taldeak aurrekontu gardenagoak eta

herritarrentzako eskuragarriagoak eskatu zituen, eta, aurten, Udalak programaka aurkeztu dizkigu. Horrek argiagoa ematen du aztertzeko orduan, baina uste dugu erabilitako terminologia ez dela egokia, eta oraindik ere itzal asko daudela aurkezteko moduan. Aurrekontuari berari eta bere planteamendu orokorrari dagokienez, Udal Gobernuak proposatutakoari gure erabateko desadostasuna agertu nahi diogu, ez duelako aurreko urteekin alderatuta inolako berrikuntzarik ekarri. Elgoibarko Udalaren lan egiteko moduari jarraipena ematen dioten aurrekontuak dira, aurrean dugun pandemia egoera kontuan hartu gabe. Aurrekontuko diru-kopurua jaitsi besterik ez dute egiten, aurreikusten den diru-sarreraren jaitsieraren ondorioz, baina ez dira inola ere erdigunean jartzen Covid-19ak gehien eragiten dien pertsonak eta kolektiboak. Egin behar bada, egingo dela esan digute, baina ez dira gai aurrekontuan hori horrela izango dela jasotzeko eta ezta ere egiteko konpromisoa hartzen dutela dokumentu batean jasotzeko. Hortaz, gure proposamen gehienak gauzatu gabe geratuko dira: udal autobusa, Sigman eta Lerunen konponketak egitea, gizarte laguntzak handitzea, ostalaritza eta den-detarako laguntzak handitzea... Gure aldetik, saiatu gara adosta-

“Pandemia kontuan hartu gabe egindako aurrekontuak dira”

sunen bat lortzen, baina ikusi dugu haien asmoa dela konpromisorik ez hartzea. Dena hitz onak dira, baina legegintzaldian ikusi dugu hitzak ez duela eraginkortasunik. Duela ia bi urte gure proposamen batzuekiko “konpromisoa” hartu zuen, eta oraindik ere gauzatzeko zain gaude: Osoko bilkurak streaming bidez ematea, larrialdi klimatikoa eta ibaien garbiketa dira onartuta dauden gaietako batzuk, baina ez dago inolako konpromisorik, eta aurrerapenak, ematen badira, oso motelak dira. Bestalde, ikusi dugu oposizioko talde guztiok ditugula gutxieneko batzuk komunean, eta ados jarriko bagina bete daitezkeela, baina, zoritxarrez, PSE-EEK ez du inolako asmorik erakutsi oposizioko gainerako taldeekin akordio batera iristeko. Berriz ere EAJ/PNVri babes eman dio, hitz batzuen truke.

Pena da hain une zailetan herritarrentzat gardentasun handiagoz ez jokatzeko eta gizarte-laguntzak beste inbertsio batzuen gainetik ez jartzea. Uste dugu lehentasuna eman behar zitzaizela behartsuenei, eta, horregatik, gure botoa kontrakoa izan da. Krisialdian ikusten da egungo udal-osaerarekin onuradun bakarrak betiko berak izango direla. Ea hurrengo hauteskundeetan buelta ematen diogun eta jendea erdian jartzen dugun”.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Maalako parkeko baranda ez da aproposa umeak ibiltzen diren gunetarako. "Maalako parkeko baranda oso arriskutsua da. Barrak horizontalean dauzka eta umeek gora igotzeko joera dute. Umeren bat errekarra erortzeko arriskua ikusten dugu, eta iruditzen zaigu Udalak aldatu egin beharko lukeela baranda hori, istripuren bat gertatu baino lehen".



Maltzagarako bidegorriko barandak zulo handiegia dituzte beheko aldean: "Joan zen asteburuan ume bat ia erori zen ibaira! Umeen altueran geratzen da zuloa, eta bizikleta, patinete, patin edo dena delakoarekin eroriz gero, zulo horretatik erraz kabituz daitezke umeak. Ezbeharren bat gertatu aurretik, baranda horretan beste barra batzuk edo jartzea eskatzen dugu".



Karakoleko zubiko obrak noiz amaituko dituzte? "Karakoleko obra egiteko moduarekin haserre gaude bizilagunak. Denbora luzez dago itxita Karakoleko zubia, eta iruditzen zaigu ez direla ari behar bezala lanean. Egun askotan egunez langile oso gutxi egoten dira, eta Gabonetan ere egun pila batetan ez zen inor ibili lanean. Aldiz, gero, gabez jardun zuten baranda jartzen, eta egiten zuten zaratarekin, lorik ere ezin izaten genuen egin. Zapatu goizetan ere batzuetan lanean aritzen dira... Noiz arte jarraituko du honek honela?". Hirigintza Sailetik jakinarazi dute obra bukatzeaz direla: "Argiteria jarri eta margotzea falta da, eta ahal bezain pronto zabalduko da zubia. Gauetan lanean jardutea ez da Udalaren erabakia izan, baizik eta Eusko Trenbide Sareak trenaren alboan egiten diren lanei ezartzen dien baldintza bat. Horrez gain, obra honetan ere COVID-19ak eragina izan du. Langile batzuk gaitxo egin ziren, eta barandak jartzeko ardurak zuen enpresa aldi batez itxita egon da. Hala ere, ez da asko falta bukatzeko eta ahalik eta azkarren zabalduko da pasabidea".



Kale garbitzaileei txalo bat eman nahi diet, benetan ondo garbitzen dituztelako herriko bazterrak: "Egunero, goizean goiz etortzen dira Basarteko parkea garbitzera kale-garbitzaileak eta benetan txukun lagatzen dute. Gu gara gero dena zikitzen dugunak, baina beraiek ondo baino hobeto betetzen dute euren zeregina eta txalo bero bat merezi dute".



Askok eta gustura egin dugu EUSKARALDIA, COVID-19ak ariketaren eragina nabarmen baldintzatu badu ere

Egoerak asko laguntzen ez bazuen ere, bigarren edizioa egin egin behar zela erabaki zuten Euskaraldia ariketa sozialaren eragile nagusiak diren Euskaltzaleon Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak. Azaroaren 20tik abenduaren 4ra egin zen ariketa, eta, erreportaje honetan, Euskaraldiak Elgoibarren eman edo laga duenaren balorazioa jaso dugu. Hiru iturritatik jasotako urarekin bete dugu balorazioaren pittarra: Elgoibarko Euskaraldia Taldearena, batetik, eta ariketan parte hartzeko izena eman zuten norbanakoena eta entitateena, bestetik.

Elgoibarko Euskaraldia Taldearen balorazioa:

Hau da Taldearen eskutik jaso dugun balorazioa: “Jende eta entitate askok eman dute izena. Jendeak, oro har, gustura egin du ariketa. Ariketak, hein batean, izan du bere eragina, eta aldatu dira batzuen inertiak eta hizkuntza-ohiturak. Ariketa ondo baloratzen du jendearen gehiengoak, eta ariketaren edizio berrietan parte hartzen segitzeko prest dago.

Ariketa eginda ere, eta jendeak, oro har, gustura egina-gatik, izan duen eragina eta lorpenak erlatibizatu egin behar ditugu. Entitateen kasuan, batez ere, guk nahi baino eragin txikiagoa izan duela uste dugu, pandemiaren eraginez.

Pandemiaren eragina handia izan baita, oso handia:

- Ariketa egiteko egunetan: jendea ez da jendearekin egon, entitate askotan jendea falta zen, elkarre batzuen jarduna etenda egon da, lantegi eta enpresa askotan jendea telelanean aritu da, taberna-jatetxeak itxita egon dira...

- Ariketa jendarteratzeko edota komunikatzeko orduan: talde aurkezpenak ez ditugu egin, kaleko ekintzarik ezin izan dugu prestatu...
- Izena emateko orduan: Euskaraldia ez da jendearen lehenasunen artean egon, ez norbanakoentzat eta ezta entitateentzat ere.


Arrazoiak arrazoi, badirudi bigarren edizioak ez duela piztu estreinakoak jendearen artean piztu zuen ilusioa. Hala ere, 1.499 norbanakok eta 104 entitatek eman zuten izena ariketan parte hartzeko, eta balorazio kuantitatiboa ona da.

Antolakuntza- eta koordinazio-lana, oro har, ona izan da. Lau teknikarik eta 24 herritarrek jardun dugu bigarren edizioa sustatzeko eragile-lanetan, eta mezua ondo jendarteratu dugula uste dugu. Euskaraz egitearen garrantzia azpimarratzen saiatu gara, euskaraz jakin edo euskararen alde egotea ez delako nahikoa”.

Norbanakoen balorazioa


1.499 lagunek eman zuten izena gure herrian; lehen edizioan baino 304 gutxiagok. Elgoibarren ariketan parte hartu ahal zutenen % 23k, hain zuzen ere (6.600 lagun gara 16 urtetik gorako euskaldunak eta ia-euskaldunak). Hona hemen ariketan izena eman zutenek balorazio-inkestan emandako erantzunak (217 lagunek erantzun zuten):

Eroso edo gustura sentitu al zara ariketak iraun duen hamabost egunetan?




- Bai, gustura jardun dut ariketa egiten.
- Erdipurdi. Izan ditut nire beldurrak eta zalantzak.
- Ez, ez naiz gustura egon. Ez diot kasu handirik egin.

Bete al dituzu zeure buruari jarritako helburuak?




- Bai, gustura geratu naiz egin eta lortu dudanarekin.
- Bai eta ez.
- Ez, izena eman nuen, baina apenas egin dudana ariketak eskatzen duena.

Txapa soinean eta bistan eraman al duzu hamabost egunetan?




- Bai, beti edo gehienetan.
- Batzuetan bai, baina dezentetan ahaztu zait jartzea.
- Ez, gutxitan eraman dut.

Euskaraz egin diezu euskaraz ulertzen dutenei?




- Bai, denei edo ia denei.
- Batzuei bai, baina beste batzuei ez.
- Lehen egiten nienei bakarrik egin diet.

Ezezagunei euskaraz egin diezu lehen hitza?




- Bai, beti edo ia beti.
- Batzuei bai, baina beste batzuei ez.
- Oso kasu gutxitan.

Euskaraz egin al dizute euskaraz dakitenek?



- Bai, gehienek bai.
- Ez, lehendik egiten zidatenek bakarrik egin didate euskaraz.
- Aurretik erdaraz egiten zidaten batzuek euskaraz egin didate.

Esan al diozu euskaraz egiteko erdaraz egiten zizunari?




- Bai, eta kasu egin didate gehienek.
- Bai, baina alferrik izan da kasu gehienetan.
- Ez, txaparekin nahikoa zen, ezta?

Zuk aldatu al duzu hizkuntza-ohituraren bat euskararen mesedetan?




- Bai, lortu dut hizkuntza-ohituraren bat edo beste aldatzea.
- Ez, ez dut nire hizkuntza-ohiturarik aldatzea lortu.

Zure ustez, Euskaraldia ariketa balekoa da euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egiteko?



- Bai, ariketaren metodologia balekoa dela uste dut.
- Ez, ideia ez da txarra, baina praktikan apenas duen eraginik.

Euskaraldia ariketa sozialaren hirugarren edizioa antolatu beharko litzateke, zure ustez?




- Bai, Euskaraldia ariketak jarraipena izan behar duela uste dut.
- Bai, baina edizio bakoitzean sektore jakin bati eragiteko izan behar duela uste dut.
- Ez, ez dut uste Euskaraldia ariketak hizkuntza-ohituretan eragiteko balio duenik.

Parte-hartzaileen komentarioei dagokienez, gehienak COVIDaren eraginari lotutako komentarioak izan dira, pandemiak ariketa izugarri baldintzatu duela azpimarratuz. Beste batzuk, berriz, ariketaren balioa azpimarratzeko izan dira. Azkenik, 16 urtetik beherakoekin ere lan egiteko pare bat eskari ere jaso dira.

Entitateen balorazioa


104 entitatek eman zuten izena ariketan parte hartzeko, Elgoibarren dauden entitateen %15ek (675 entitate daude gure herrian). Entitateek ere balorazio-inkesta jaso zuten. 51 entitatek erantzun zioten inkestari. Hemen erantzunak:

Ariketan izena eman duten entitateak, sektoreka sailkatuta




- Merkataritza-ostalaritza.
- Elkarateak eta gizarte mugimenduak.
- Enpresak eta industria-mundua.
- Erakunde publikoak.
- Hezkuntzakoak.

Eroso edo gustura sentitu al zarete ariketak iraun duen hamabost egunetan?




- Bai, gustura jardun dugu ariketa egiten.
- Erdipurdi. Ez gara beti zentratuta egon.
- Ez, ez dugu gustura jardun.

Bete al dituzue, oro har, zuen buruari jarritako helburuak?



- Bai, gustura geratu gara egin eta lortu dugunarekin.
- Bai eta ez, erdipurdi.
- Ez, izena eman genuen, baina apenas egin diogun kasurik arikerari.

Zuenean sortu diren *ariguneak*, oro har, euskaraz lasai jarduteko gune edo taldeak izan al dira?



- Bai, gure *ariguneek* bete dute haien funtzioa.
- Bai eta ez. Kasu batzuetan bai, baina ez beti.
- Ez, *ariguneak* sortu genituen, baina apenas egin diogun kasurik arikerari.

Jarri al zenituzten arigune-ikurrak *ariguneetan*?



- Bai, beti edo gehienetan.
- Batzuetan bai, baina ez denetan.
- Ez, ikurrak jaso egin genituen, baina jarri ez.

Zuen entitatean aldatu al da hizkuntza-ohituraren bat euskararen mesedetan?



- Bai, lortu dugu hizkuntza-ohituraren bat edo beste aldatzea.
- Ez, Euskaraldiak ez du gure entitateko hizkuntza-ohituretan eragin handirik izan.

Euskaraldia baleko ariketa da zuen entitatean euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egiteko?



- Bai, ariketaren metodologia balekoa dela ustegu dugu.
- Ez, ideia ez da txarra, baina praktikan apenas duen eraginik.

Datorren urtean, ariketa-metodologia hau lantzen jarraitzeko prest egongo zinatekete?



- Bai, prest gaude gure entitatean Euskaraldiak proposatzen duena lantzen jarraitzeko.
- Prest gaude, baina ariketaren metodologiak gure entitateari hobeto egokituta egin behar duela uste dugu.
- Ez, ez dugu uste metodologia hau balekoa denik hizkuntza-ohituretan eragiteko.

Entitateetatik jaso diren komentarioen artean ere gehienak COVID-19ari lotutakoak dira. Animo berbak ere jaso dira, ariketa gustura egin dutela gehituz, baina Euskaraldiak aldaketa handirik ez diela ekarri ere esan dute batzuek.



Jone Olaizola



2021. urtea burbuilekin hasi dugu. Burbuila sozialekin, hain zuzen ere. Pandemiaren hedapena saihesteko estrategia bat omen, denok burbuiletara, beraz.

Burbuilei begira, hiztun-komunitateak bereiz ditzaket: ingeles edo espainol hiztunak burbuila handiak dira; euskal hiztunak, burbuila txikiak. Beste burbuila-mota batzuk ere ikus ditzaket: gizon izatea burbuila handiaren parte izatea da; emakumea izatea, berriz, burbuila txikiaren parte izatea.

Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelek idatzitako *Trikua esnatu da* saiakera liburuan esaten da emakume izatea eta euskal-



Eire Vila

dun izatea bazterreko bi burbuila liratekeela; biak direla menderakuntzaren alabak; eta abiapuntu horretatik etorri behar dela konplizitatea feminismoaren eta euskararen artean. Feminista denak errazago ulertu dezake euskaldunok sentitzen dugun zapalkuntza egoera, berak ere zapalkuntza sufritu duelako.

Gainera, bi norabidetako harremana da feminismoaren eta euskararen artekoa; izan ere, zer gertatzen da euskararekin, euskal hiztunen komunitatea patriarkala, kapitalista eta arrazista denean? Zer botere-harreman sortzen ditu? Zer eskusio eta bazterketa eraikitzen? Zer on egiten dio horrek euskarari?

Feminismoa eta euskararen arteko lankidetzaren ondorioz, komunitate hobea sor dezakegu.

“Feminista denak errazago uler dezake euskaldunok sentitzen dugun zapalkuntza egoera”



Hirulanek egindako desfilea, Myriam Martinen bigarrena.

“Ipurterrea naiz, eta buruan bueltaka dabilkidana egin arteko onik ez dut izaten”

Myriam Martin Arritokieta JOSTUNA ETA ILE APAINTZAILEA

Bizitzako lehen hamar urteak Mendaron egin zituen Myriam Martinek, baina Debakoak ditu oroitzapen gehienak, adin horretan hara aldatu zirelako bere gurasoak. Elgoibarren, amamarenean, ikasi zuen josten eta brodatzen, amamari ikusiaz, eta afizio horri eusten dio. Ofizioz ile-apaintzailea da. Gaur, Mendaron bizi da, eta herriko Lutximak ile-apaindegian egiten du lan, baina eusten dio bere betiko afizioari ahal duen guztian. Beste bi lagunekin batera Hirulan egitasmoa sortu du, eta bi film labor ekoitzi dituzte. Hirugarren bat ere prest dute, egoera hobetzen denean aurkezteko.

- AINARA ARGOTIA -

◆ Nondik datorkizu josteko afizioa?

Amamarekin hasi nintzen josten, oso ume nintzela, 6-7 bat urterekin. Denbora asko ematen nuen amamarenean, eta haren afizioak neure egin nituen. Gantxiloa egiten zuen bereziki amamak, sekulako lanak, baina brodatzen ere egiten zuen eta berak irakatsi zidan. Horixe zen gehien gustatzen zitzaidana: eskuz brodatzea. Eskolarako ez neukan horrenbeste afiziorik. Hobe izan banu!. Hala, 15 urte nituela izekoren ile-apaindegian hasi nintzen lanean zerbait egite aldera, eta hantxe jardun nintzen 36 urte bete arte. Etxean jarraitzen nuen josten, baina etxerako; semeentzako arropa josten nuen eta oparitarako gauzatxoak ere bai. Ile apaindegian tximetaraino amaitu nuen eta 36

urterekin nebarekin hasi nintzen lanean, bulegoko langile bat ordezkaten. 2 urte egin nituen han eta beste urtebete senarrarekin lanean. Paper kontuetan ez nintzen moldatzen, baina; ez zitzaidan gustatzen, eta ile-apaindegira ere itzuli nahi ez nuenez, arropa denda bat ireki nuen Deban. 3 urtez izan nuen zabalik, baina ez zen izan nik espero nuena. Deba bezalako herri txiki batean denda bat mantentzea ez da erraza. Ezin zara imaginatu ere egin arropa denda batean zenbat ordu ematen dituzun zer egin ez dakizula.

◆ Baina topatu zenuen orduan ere zerregina.

Bai, patroigintza ikasten hasi nintzen Donostian tarte horretan. Ordurako asko

josten nuen, baina neure kasa ikasia nuen dena. Dendako ordu hiletan josten nuen, eta egun batean Getxo Modako iragarki bat ikusi eta izena ematea erabaki nuen. Urtero antolatu ohi duten lehiaketa da Getxo Moda, eta aurkezten diren guztietatik lehenengo hamarren artean sailkatzten direnek euren arropa desfilean erakusteko aukera izaten dute. Eta iritsi nintzen nireak erakustera ere. Sekulako ilusioa egin zidan hara joateak eta barruko harra esnatu zitzaidan. Gutxira, denda itxi nuen eta soinekoak josten hasi nintzen neure gogoz, denbora ematearren, aparteko helbururik gabe. Eta hogeitau bat pilatu nituenean desfile bat antolatzea pentsatu nuen. Etxean komentatu nuenean, semeek estu hartu ninduten. ‘Zer zabiz, ama? Zein

joango da desfile hori ikustera?’ hasi zitzaizkidan, baina niri berdin zitzaidan. Buruan bueltaka dabilkidana egin arteko onik ez dut izaten eta garbi neukan egin, egingo nuela. Begira, nire semeetako bat *El Conquis* saioan lehiatu zen eta etxean amorrarazita egoten nintzen begira, soka bertikalean gora igo ezinda ikusten nitueanean. ‘Ezin da ba horren zaila izan’ pentsatzen nuen, eta esan ere egin nion bueltan etorri zenean. Eta jo nion erronka. Joan ginen Debako kiroldegira, ahalegindu nintzen eta ezin, baina arantza hori kendu arteko onik ez nuen izan. Bi hilabetez egunero joan nintzen kiroldegira, eta igotzeko gai nintzela ikusi nuenean, jo nion berriro desafioa eta aho zabalik utzi nuen.

♦ **Tematu zinen eta lortu zenuen. Deban egin zenuten desfilea.**

Izugarria izan zen. Inguruko guztiek lagundu zidaten antolatzen. Ordurako Debako Janire ile-apaindegian nembilen lanean, eta ile-apaindegiko lankideek lagundu zidaten modelo guztiak orrazten eta Julia Quintanak makilatzen, Kulunka ballet taldeko irakasleak eta dantzakideek dantzan egin zuten desfilean, zuzenean abestu zuten beste lagun batzuek, Udalak argiztapena eta soinu-mahaia jarri zizkigun... nire proiektua izan zen, baina lagun artean ondu nuen. Dena irten zen primeran. Udan egin genuen desfilea, uztailean, eguraldi bikaina egin zigun, euren onena eman zuten etxeko eta lagun guztiek eta egun ahaztezina izan zen guztiontzat. 23 bat neskak desfilatu zuten eta dantza eta abarretan beste sei bat lagun aritu ziren. Eta horri gehitu dena antolatzen eta prestatzen lagundu zidaten gainerako guztiak. Jende asko. Egun hark ekarri zuen beste proiektu bat: *Ametzak janzten* filma. 2016ko uztailean amaitu genuen.

♦ **Ez zen desfile huts-hutsa izan hortaz.**

Ez, film baten parte bat izan zela esan dezakegu. Zinezale amorratua naiz eta ia astero joaten naiz zinemara ere, eta kontatu nahi nuen istorio bat. Idatzi ere egin nuen, gaztetan Debatik Parisera joan beharra izan zuen emakume gazte baten

kontakizuna, baina gidoia iruditara eramateko laguntza behar nuen, nik ez baitakit grabatzen. Eta halaxe lehengusinari [Aurora Arritokieta] eta lagun bati [Ane Landa] deitu nien, biek ere ikus-entzuzko ikasketak dituztelako eginda, eta Aneren kasuan, eskarmentua ere baduelako, produktora batean egin izan duelako lan kamerari moduan.

♦ **Eta zer egin duzu jantzi haiek guztiekin?**

Soinekoak han daude Debako lokal batean, geldi. Jende askok esaten dit In-

ternetez saltzeko, baina ez daukat energia horretan gastatzeko gogorik. Badakit salgai jarri ezkerok hasiko zitzaizkidala handik eta hemendik talla kontuez eta abarrez galdezka eta buruhaustea baino ez zidala ekarriko horrek. Eta ez daukat horretarako gogorik. Nik gozatu dut haiek sortzen, josten eta erakusten. Ez dut gehiagoren beharrik. Bizitzak batetik bestera eraman nau, baina aukera eman dit nik nahi dudanean aritzeko. Mendaroko Lutximak ile-apaindegian egiten dut lan orain astean

“Donostian ikasi nuen patroigintza. Ordura arte ere asko josten nuen, baina neure kasa ikasia nuen dena”



bi egunez. Semeak hazita dauzkat eta zorionez bizi naiteke horrela, benetan gustatzen zaizkidan gauzei ahal den denbora gehien eskainita. Ile-apaintzaile lana ere gustatzen zait eta gustatzen zait ordu batzutan jendearekin egotea eta hori, baina ez dut lotura handiagorik nahi.

◆ **Ametsak janzen hura gerora etorriko zenaren hazi bat izan zen. Azalduiguzu.**

Desfile hartatik sortu genuen 2018an *Iraganean josia*. Filmaren hasiera eta bukaera sortu genituen pantailarako, eta desfileko irudiekin osatu genuen kontakizuna. Familia eta inguru osoa sartu nuen saltsan. Atera kontuak: semeek ere parte hartu zuten eta gazteenak abestu ere egin zuen. Aurorak eta Anek egin zituzten grabazio lanak. Anek produktura barentzako egin du lan oraintsu arte kamerari moduan eta Aurorak ere ikusentzunezko ikasketak eginda dauzka, baina sekula ez du ikasitakoan lan egin.

◆ **Hirukotea zarete hortaz. Zerk batu zintuzten?**

Esan dizut lehen ere ez dudala buruan daukadan hori egin arteko onik izaten, baina egin nahi nuen horretarako derrigor behar nuen laguntza eta gertuen nauzkanak xaxatzeari ekin nion. Behar nuen laguna, baina debalde lan egingo zuena, jakina, eta komentatu nien. Eta pozik hartu zuten. Nire aldean, denbora gutxiago dute Aurorak eta Anek, ume txikiak dituztelako, eta hori da nik nire buruarekin daukadan arazoa: nik nahiko nukeen lan erritmoari ezin diotela erantzun haiek, eta ni ipurterre bat naizela. Hasi eta ahal den azkarren bukatzekoa naiz ni gauzak. Baina, esan gabe doa, ulertzen dudala. Neuk ere pasatu nuen garai hori, neurtzako nahi eta behar beste denbora hartu ezin nuen garaia. *Iraganean josia* izan zen gure, Hirulanen, lehenengo proiektua. Irabazi asmorik gabeko erakunde da Hirulan, Udalaren dirulaguntza jasotzeko propio sortutakoa.

◆ **Zerk bultzatu zintuzten 'Iraganean josia' aurkeztera?**

Nire lana erakutsi nahi nuen: soine-



“Semeak hazita dauzkat eta zorionez bizi naiteke gustatzen zaizkidan gauzei denbora eskainita”

koak josi eta gidioa idatzi nuen nik. Debako emakume gazte baten bizitza kontatzen dugu *Iraganean josia* lanean. Garai zailean jaiotako emakume gazte baten kontakizuna da. Beste askoren antzera, jan beharrak Frantziara alde egitera behartu zuen, aberats jendearen etxean neskame lanak egitera. Eta han, etxeko nagusiaren semearekin maitemindu eta haurdun gelditu zen. Bikotekidearen amak, baina, ez zuen sekula onartu eta umea izan zuenean etxetik kanporatu zuen. Ama izan berria sorterrira itzuli zen orduan, umerik gabe, kendu egin ziotelako han. Isilean gorde zuen emakumeak dena Debara itzuli zenean eta lortu zuen bere bizitza berregitea, baina handik urte askotara, haren bilobak amamak gaztetan Frantziatik ekarritako kaxa zabalduko du eta han eguneroko bat eta Frantzian

garaiko ehun onenekin jositako arropen patriiak topatuko ditu. Hori ikusita, desfile bat antolatuko du bilobak amonaren omenez, eta desfile horretara bilduko da Donostiako jostun handi bat. Hura berehala konturatuko da desfilean ikusi duen soineko bat Frantzian ikusia zuela aurrez. Eta desfile hori da guk Deban egin genuen desfileko irudietan jaso duguna.

◆ **Non bilatzen duzu inspirazioa?**

Ez dakit. Irudimen handikoa naiz. Umetatik izan dut sortzeko egarri hori.

◆ **Eta proiektu horrekin izandako arrakastak jarri zaituzte beste batean pentsatzen**

Bai. Hortik sortu zen *Ipuinen mesedea*. Dagoeneko bukatuta daukagu eta trailerra ere eman dugu, baina orain, aurkeztea falta zaigu. Lau ipuin batu ditugu proiektu honetan: *Txanogorritxu*, *Edurnezuri*, *Loti*

ederra, eta *Ederra eta piztia*. Antzerki tipora eman nahi genuen zati bat, zuzenean, eta beste parte bat, film labur moduan. Baina COVID-19aren kontuarekin geldi daukagu dena. Hemen ere jostintzak badu bere protagonismoa, baina ez du bestean adinako pisurik. Hori bai, jantzi denak neuk josi ditut. Deban jendeurrean eman nahi dugu, aktore guztiak, 50 bat guztira, debarrak direlako. Muxurik jardun dute denek, grabazio ordu asko izan dira, eta gustatuko litzateke haiengatik ere proiektua erakusteko aukera izatea. Baina, orain, ez dago horrenbeste jende batzeko modurik.

♦ **Jostuna zara eta irakasten ere badiharduzu. Gero eta jende gehiago dabil josten ikasten. Zergatik dela uste duzu?**

Bai, jostintza eskolak ematen ditut Itziarren duela bi urtetik. Talde bakarrarekin hasi nintzen, ezagun batek eskatuta, eta bigarren urtean, beste talde bat osatu zen. Deban ere eskatu izan didate eskolak emateko, baina ez dut beste konpromisorik hartu nahi. Gustatzen zaidan kontu bat da, baina daukadanarekin aseta nago. Zergatik dagoen horrenbesteko eskaera? Ez dakit. Nik uste dut entretenimendu bat bilatzea beti dela ona eta norberak bere gustuko arropak josteko gaitasuna izatea ere gauza handia dela, loturetatik ihes egiteko.

♦ **Zer beste duzu orain buruan?**

Bururatzen zaizkidan ideiak gauzatzeari. Badaukat beste gidoi bat ere idatzita, baina badakit hori gauzatzeari zaila izango dudala. Deban badauzkagu kondaira batzuk liburuetan ondo jasota, tartean hauek: *Urkamendiko elezaharra*, *Debako irulea*, *Hiru olatuak*, *Irrazabalen ahaidea* eta *Alostorrearen kondaira* [Lehenengo aldiz 1866an argitaratu zituzten kondairok *Leyendas Vasco-Cántabras* obraren barruan. Juan Venancio Arakistainena da lehen bertsio hura, eta esaten dute kondaira zahar haiek 88 urteko emakume batek kontatuak direla]. Gerora hainbat autorek berriro idatzi dituzte kondaira haiek. Alex Turrillasek eta Goizane Aizpuruak eman zituzten azkena liburu batean,

Jose Ignacio Treku margolari eta ilustratzailearen marrazkiz lagunduta, eta kondaira haien inguruan idatzita daukat nik istorio bat, marrazki bizidunetara eraman nahiko nukeena. Turrillasekin ere hitz eginda daukat, eta berak ere badauzka lokalizazio egoki batzuk-eta pentsatuta, baina hor dago, geldi. Idatzitakoa eman diet irakurtzeko hainbat laguni, baina seguru nago irakurri ere ez dutela egin. Ni sine-tsita nago oso polita izango litzatekeela, baina ez dut erantzunik jaso eta behar bada ez da nik uste bezain ona. Auskalo! Baina ezetz ere ez didatenez esan, nik

jarraituko dut hor lanean, noizbait gauzatura ikusteko itxaropenez. Askok esaten didate nahi izatea baino garrantzitsuagorik ez dagoela, eta hein batean hala da, baina laguntzarik gabe dena da zailagoa. Betikoa da: dirua behar da hemen. Dirua duenak lortuko du zeinek lagundu, baina dirurik ezean, jai dago. Denborarik ez dutela esaten dutenek ere ateratzen dute denbora, dirua eskainiz gero. Diruak denbora egiten du. Proiektu honek lan handia eskatzen du, eta ez da gainera, mesede truk inori eskatzekoa.

*“Irudimen handikoa naiz,
eta umetatik izan dut sortzeko egarria”*



Santa eskerik ez da izango aurten Elgoibarren eta Mendaron, baina Etxegiñakoek Caritasentzako dirua biltzeko bidea zabaldu dute

Koronabirusak dena ilundu du, eta santa eskerik ere ez da izango aurten. Hala jakinarazi dute Elgoibarko Izarrak, Etxegiña taldeak eta Mendaroko santa eskeko taldeak. Pena handiz hartu dute erabakia, jakin baitakite etxe askotan koplarien zain-zain izaten direla, baina egoera honetan, ahal den arrisku gutxien sortzeko hartu dute erabakia, denon mesederako delakoan. "Egoera latz honen aurrean ezer ez da berdin, eta gure buruak eta ingurukoak zaintzea tokatzen zaigu", zabaldu dute, esaterako, Etxegiña taldekoek, duela 96 urtetik hona Elgoibarko kaleak koplaz eta trikiti kantuz girotu dituztenak.

Urteetako tradizioa etengo du, beraz, koronabirusak. Elgoibarko Izarrakoek 27 urtean koplatu dituzte herriko baserri auzoak, Santa Ageda bezperaz. Behin bakarrik huts egin zuten, 2015ean, elurteagatik. "Pena ematen digu, handia gainera, baina horrelakoetan osasunak beste guztiaren aurretik egon behar du ezinbestean. Ez dugu arriskurik hartuko". Urtebeteko etena izatea nahi lukete, datorren urtean baserri-auzoetako bidea hartu nahi luketelako berriro otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan. "Egiten duguna estimatzen duzuela sentitzen dugu, eta ohitura zaharrari eusteko asmoa daukagu, zuek nahikoa dela esaten ez diguzuen artean".



Mendaroko santa eskeko talde bat, iaz.

Diru eskea, kolektibo kalteberen alde

Herriko behartsuenentzat eta kolektibo kalteberentzat eskatu ohi dute urtero dirua Etxegiñakoek santa eskean. Batzen duten diru guztia Caritasi eman ohi diote eta aurten inoiz baino premia handiagoa dagoela aintzat hartuta, kontu korrante bat zabalduko dute hala nahi dutenek diru-ekarpena egin dezaten (Laboral Kutxa: 3035 0007 23 0071019042). "Osasun krisi bezala hasi zena krisi sozial eta ekonomiko ere bilakatu da, eta lehen baino gehiago dira behar gorrian aurkitzen diren kolektiboak", zabaldu dute prentsa oharrez.

Julen Zabaleta eta Koldo Lizarralderi gorazarre



Julen Zabaleta eta Koldo Lizarralde omendu zituzten zapa-tuan zigilu erakusketaren itxiera ekitaldiaren barruan. Sotoan egin zuten ekitaldia, erakusketa gelan egin ordez, eta 85 bilduma egileetatik bakarra etorri ahal izan zen saria jasotzera. Hala ere, denak izan zituzten gogoan, eta eskerrak eman zizkieten erakusketa posible egin duten laguntzaile guztiei ere: Udalari, Pello Arrieta eta Javier Elorza historialariei, Correosi... Urtero bezala, omenduak ere izan ziren: Julen Zabaleta margolaria eta Koldo Lizarralde historialaria. Julen Zabaleta bera izan zen ekitaldian saria jasotzen, eta Koldo Lizarralderen izenean bere emazte Mila Picazak jaso zuen oroigarria.


'Konpromisoa' antzezlan, gaur zortzi, Elgoibarren

Txalo Produksioak-ek *Konpromisoa* antzezlan emango du gaur zortzi, otsailaren 5ean, Herriko Antzokian (19:00etan). Tomas eta German aspaldiko lagunak dira. Tomas egile kaskar bat da, eta German, berriz, lanbidean nabarmentzerik lortu ez duen aktorea. Germanek arazo ekonomikoak ditu, eta nola edo hala bere, apartamentua saldu nahi du. Hitzordua jarri du erosle izan daitekeen batekin, eta Tomas lagunari etortzeko eskatu dio, hala moduzko idazlea izanagatik haren aurpegiak konfiantza ematen duelako. Eztabaidan hasiko dira bi lagunak eta halako baten iritsiko da eroslea. Zein paper hartuko duen erosleak? Ikustera doanak jakingo du.

‘El Rioja y los 5 sentidos’ nazioarteko argazki lehiaketa irabazi du Eduardo Arrillagak, Haroko Ardoaren Jaian eginiko argazkiarekin

Errioxako Haro herrian egiten duten Ardoaren Jaian ateratako argazki batekin irabazi du Eduardo Arrillaga argazkilari elgoibartarrak *El Rioja y los 5 sentidos* nazioarteko argazki lehiaketa. 358 argazkilarik parte hartu dute lehiaketan eta 2019an ateratako *Cascadas de Haro* argazkiagatik saritu dute elgoibartarra [2020an ez zuten ospatu Ardoaren Jaia, pandemiagatik]. Arrillagak makina bat argazki egin ditu urteotan Elgoibarko Txiki Egunean ere, eta ez zitzaion arrotza egin Haron ardoz blai eginda lanean jardutea.

Urte berean Buñolen (Valentzia) egiten duten Tomatina festa entzutetsuan ere izan zen argazkiak egiten. Aipatu du ez direla lanerako plaza errazak eta ez dela samurra argazki ganorazkoak egitea, uneoro ibili beharra duelako kamerako objetiboa garbitzen, baina bistan da gustuko duela eta primeran moldatzen dela. *El Rioja y los 5 sentidos* lehiaketan, Juan Miguel Ortuño Martínez argazkilari murtziarrak lortu



zuen bigarren saria eta Jose Ramon Luna de la Ossak, hirugarrena. Sariei dagokionez urte oparoa izan da 2020a Arrillagarentzat. Bere argazkiak onenen artean aukeratu dituzte nazioarteko hainbat argazki lehiaketatan, besteak beste, Ipa Photography Awards (Dubai), Ikei Photo Contest edo All About Photo lehiaketetan. Azken aipamena MonoVisions Photography Awards lehiaketan lortu du. Arri-

llaga Guatemala, Dominikar Errepublika, Haiti eta Boliviako nekazal herri txiroen eguneroko bizitzan murgildu zen 1994an Mugarik Gabeko Albaitariak GKEaren eskutik, eta *Deja que el gallo cante* argazki bilduma osatu zuen. Orain, Ohorezko Aipamena jaso du bilduma horrek Monovisions nazioarteko lehiaketan, txuri beltzean eginiko argazkiak saritzen dituen lehiaketan.

Oier Etxaniz izan zuten gogoan pailazoen Herriko Antzokian

Amaren intxaurrak ikuskizuna taularatu zuten barikuan Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen Herriko Antzokian, eta saioaren bukaeran, iazko apirilean hil zen Oier Etxaniz gazte elgoibartarra izan zuten gogoan. Etxaniz ospitalean ezagutu zuten pailazoen. Aspanogirekin elkarlanean aritzen dira Katxiporretako guztiak, eta tartean minbizidun umeei ospitalean bisitak egiten dizkiete. Hain justu ere horietako bisita batean ezagutu zuten elkar, Etxaniz boluntario ere aritzen zelako Aspanogin. Saioaren azkenaldera haren omenez hitz egin zuten pailazoen eta Etxanizen bihotz handia eta haren zintzotasuna nabarmendu zituzten. Zuhaitz bat ere



oparitu zieten pailazoen Etxanizen etxekoei. Lourdes Beneitez eta Iñaki Larrañaga, Oierren ama eta adiskidea, igo

ziren oholtzara eta amak semeak sarri esan ohi zituen hitzak gogorarazi zituen: “Umorea, botikarik onena”.

LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. Etxeko langile moduan ere egingo nuke lan, eta ospitalean gauak paratzeko ere prest nago. ☎ 642 846 905

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Baita sukaldari laguntzaile lanetarako ere bai. Mendekoak zaintzeko titulua daukat. ☎ 666 197 831

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka eta baita gauaz ere. Arreta Soziosanitariarako titulua daukat. ☎ 683 580 665

Eraikuntzan peoi lanak egingo nituzke, esperientzia eta hurrengo titulua dut: eskorgagidari txartela, garabi-zubia erabiltzeko txartela eta plataforma jasotzaile karneta. Adinekoak zainduz, garbiketara lanetan eta banatzaile aritzeko ere prest nago. Auto propioa dut. ☎ 604 207 579

Adinekoak zaintzeko, etxeko lanak egiteko zein tabernan lan egiteko prest nago. ☎ 681 212 449

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile aritzeko prest, bai eta orduka lan egiteko ere, baita asteburuetan ere ☎ 688 735 551

Neska euskalduna LH eta DBH mailako haurrei partikularrak emateko prest. ☎ 687 729 418

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia dut. Elgoibarren bizi naiz ☎ 660 511 781 / 943 742 330 (Elena)

Gauetan pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Etxean garbiketara lanak ere egingo nituzke, orduka. ☎ 690 134 485

Garbiketara lanak nahiz zaintza lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz, eta mendeko pertsonen zaintzarako ziurtagiria daukat. ☎ 626 490 986

Haurrak zainduko nituzke arratsaldeetan. Euskalduna naiz. ☎ 688 624 315

Neska euskalduna eskaintzen da pertsona edadetuak zaintzeko. ☎ 617 571 210

Eskaerak

BPXport enpresak Olaizaga kiroldegiko eta Mintxeta kirolguneko harreretan lan egiteko lagun bat behar du. Administraziora eskarmentua izatea eta euskaraz jakitea ezinbestekoa. elgoibar@bpxport.es helbidera bidali behar da curriculumua.

Umea goizez eskolara eramateko pertsona bat behar dut. 8:30ak aldera. ☎ 650 095 932

GARAJEAK.....

Garaje itxia hartuko nuke alokairuan. Luzerako alokairua izango da. ☎ 643 372 825

Garaje itxia saltzen dut San Roke auzoan, kiroldegitik gertu. ☎ 679 851 185

Garaje itxia alokatzen dut Urazandin, Kalamua kalean. ☎ 943 531 131

BESTELAKOAK.....

Abuztuaren 8an moto batek gizonezko bat harrapatu zuen Txankakuako eta Sigmako zubien arteko errepidean. Gertatutakoa argitzeko lekuko bila gabilta. ☎ 628 115 677

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak salteza: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak salteza: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzko Erregeko Administrazioaren Kontabilitatearen Erakundeak



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

Jakin nahi nuke jabe ez den pertsona batek edo, hala badagokio, erregistroko titular batek bete dezakeen komunitateko lehendakari kargua.

Arau orokor gisa, komunitateko Gobernu Batzordeko karguak jabeek bete behar dituzte. Hala ondorioztatzen da, argi eta garbi, legea irakurrita; lehendakariaren kargua jabeen artean hautatu behar da, edo, bestela, txandaka edo zozketa bidez. Ez dira nahastu behar jabe-izaera eta erregistro-titularra (edo titular fiskala, katastrala edo administratiboa), kontzeptu zabalagoa baita. Nahikoa litzateke eskualdaketa-kontratu pribatu bat, jabetzaren portzentai bat eskuratu ahal izateko, jabeekide gisa. Izan ere, jabearen izaera hartzen da, nahiz eta jabetza horren zati batena baino ez izan. Kasu horretan, jabeekidetzako egoera horrek berarekin dakartza jabetza baten titularrak dituen eskubide eta betebeharrak guztiak, nahiz eta, agiri pribatu bidez jabetza eskuratzean, alderdiek erabaki hori eskritura publikoan ez jasotzea eta Jabetza Erregistroan inskribatzea.

Ondorioa: Jurisprudentziak behin eta berriz dio jabea ez den lehendakari bat izendatzeko erabakia erabat deuseza dela. Nahikoa da jabe ez den presidenteari idatzi bat bidaltzea horren berri emanez, eta, hala badagokio, izaera hori duen komunitateko beste kide bat izendatzea lehendakari.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **June**, igandean 8 urte beteko dituzulako. Ondo-ondo ospatu zure eguna, eta muxu potolo bat, asko maite zaitugun etxekoon eta lagun guztien partez.



Zorionak, **Bittor**, otsailaren 1ean 8 urte egingo dituzulako. Muxu potolo bat etxeko denon partez. Asko maite zaitugu.




Hamarkadia konturatu gabe pasau jaku... 10 urte, **Laia**! Zorionak eta muxu potolo bana, maixia, etxeko guztien partetik!




Zorionak, **Alaia**, eguaztenean 2 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat familia osoaren partez eta bereziki Elgoibarko Iratxoaren eta Pikupeko famauen partez. Gu prest merendolarako!



Zorionak **Amets**, larunbatean 7 urte! Egun zoragarria igaro dezazula opa dizugu izugarri maite zaitugun Mendaroko eta Oiarzungo familiak.



Handitzen handitzen... Zorionak, **Alejandro**. Jarraitu beti bezain alai eta jator. Muxu handi bat lagunena eta etxeko guztien partez. Asko-asko maite zaitugu.



Zorionak, **bikote** zuen 60. urteurrenean. Muxu asko familia guztien partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

BARREN
safe
sozialetan


facebook.com/barrenaldizkaria


twitter.com/barreneus


instagram.com/barrenaldizkaria



EXTRA ASTEA

3SB286B BALAY ARROPA LEHORGAILUA



509 €

- 8 kg-ko karga-ahalmena
- A+ energia-klasifikazioa
- Bero-ponparen lehortze-mota

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

29 BARIKUA

18:00 Eukaliptoaren inguruko hitzaldia Mendaron, San Agustin kulturgunean. Udalak antolatuta. Gonbidapena dutenak bakarrik joan ahal izango dira.

19:00 Bideo foruma: 'Mujeres del siglo XX'. Loredi Salegik dinamizatuko du. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

31 DOMEKA

19:00 Kontzertua: Musbika Ensemble taldeak 'Antonio Gaztañetaren bidaia' obra estreinatuko du. Herriko Antzokian.

5 BARIKUA

19:00 Antzerkia: 'Konpromisoa'. Zuhaitz Gurrutxaga, Joseba Apaolaza eta Ramon Agirrek taularatuko dute, Herriko Antzokian.

Zinea (Herriko Antzokian)

'Manual de buena esposa'

29 barikua: 19:00
30 zapatua: 19:00
31 domeka: 19:00
1 astelehena: 19:00



Zapatos rojos y los siete trolls'

31 domeka: 16:30



'Bi urte, lau hilabete eta egun bat'

3 eguaztena: 19:00



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
29 BARIKUA	30 ZAPATUA	31 DOMEKA	1 ASTELEHENA	2 MARTITZENA	3 EGUAZTENA	4 EGUENA	5 BARIKUA
Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez Arriola	Egunez Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Ibañez
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912



I. URTEURRENA

Jesusa Odria Barrenechea

2020ko urtarrilaren 20an hil zen, 87 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, urtarrilaren 31n, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

Beti gure bihotzean.



I. URTEURRENA

Maria Jesus Barrutia Etxaniz

2020ko urtarrilaren 22an hil zen, 76 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, urtarrilaren 31n, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

***Zure irribarre goxoa eta maitasuna
betirako izango dira gure artean.***

Familia



V. URTEURRENA

Garbiñe del Hoyo Murua

2016ko urtarrilaren 28an hil zen, 48 urte zituela. Haren oroimenez V. urteurreneko meza izango da, domekan, urtarrilaren 31n, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren Eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

***Zeruko izarren artean aurkitu duzu tokia,
lurrean utzi dituzun izarrei emateko argia.
Zure indarrak emango digu benetako bizia,
egunsentiarekin batera jarraitzeko bidia.***

Zure familia



GERTU

Gestora de Cooperativas

Iriondo Eraikina

Pedro Mugurutza, 2



AZKEN ETXEBIZITZAK!!



- Elgoibarko erdigunean.
- 10 etxebizitza 3 logelakoak guztiz kanpokoak.
- Obra hasiera: 2020. urtearen amaiera.

Eraikitzen:

BANTTON BILBAO
GRUPO

Informazio gehiago

☎ 943 458 731 - ✉ info@gertugestora.com - www.gertugestora.com